

opusdei.org

Hezkuntza jasangarria

Konpromiso sendoa
ingurumenarekin

2020 Uzt 29

Hezkuntza jasangarria

Gazteluetako Ikastetxeak konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko eta ikasleei balio horiek irakasteko. Ekintzen erantzukizuna eta ingurumenean izan dezaketen eragina zeharka lantzen dira urte osoan. Eskolako Agenda 21 iraunkortasunerako

hezkuntza-estrategia garrantzitsua da, eta gure udalerriko ekintza-planetan ikasleek parte hartzeko ildo bihurtu da.

Zaindu zure ikastetxea

Ingurumena zaintzea ingurune hurbilenarekin hasten da. Ikasturtean zehar, hainbat jardueraren bidez, ikasleak kontzientziatu nahi dira eskolako instalazioak zaintzearen, paperontziak erabiltzearen eta berdeguneak errespetatzearen garrantziaz.

Sentsibilizazio kanpainak

Ingurumenarekin sentsibilizatzeko kanpaina eta lehiaketetan parte hartzen dugu. Hiri handietan dagoen ingurumen-arazo handienetako bat autoen erregai fosilen errekuntzak eragindako kutsadura da.

Ikasle gazteek auto elektrikoa
erabiltzeko kontzientzia soziala
areagotzen laguntzen dute,
Greenpower hiriko lasterketetan
parte hartuz.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/hezkuntza-jasangarria/](https://opusdei.org/eu-es/article/hezkuntza-jasangarria/)
(2026 Mar 2)